



PRESTAKUNTZA ARLOA:	PRESTAKUNTZA BEREZIA
MODALITATEA:	AURREZ AURRE
HIZKUNTZA:	GAZTELANIA

INFORMACIÓN ESTADÍSTICA MUNICIPAL. ACCESO A DATOS A TRAVÉS DEL NUEVO APARTADO MUNICIPAL Y LURDATA

KODEA

50/2023/35/21/1

INFORMAZIO OROKORRA

DATAK	Apirilak 17	TOKIA/IKASGELA	Bilbo. IVAPeko egoitza (Errekalde zumarkalea, 28)
IRAUPENA	4 ordu	ORDUTEGIA	9:00-13:00
MATRIKULA EPEA	Martxoak 31	BAJAK (ez darama gasturik)	Apirilak 16
HARTZAILEAK	Euskal toki-administrazioetako enplegatu publikoak	HAUTATZE IRIZPIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> Lanean datu estatistikoak behar dituzten teknikariak, politika publikoak planifikatzen, lantzen, proiektuak gauzatzen edo ekintzak programatzen dituztenak. Horretarako, beharrezkoa da fase guztietan informazioa sartzea, batez ere diseinurako eta ebaluaziorako. Beren lanean biztanleriari, gizarteari edo ekonomiari buruzko informazioa behar duten pertsonak
IKASLE KOPURUA	20 pertsona	IRAKASLEA	Jose Jabier Zurikarai Marcilla. EUSTAT

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK	Eustatek eskaintzen dituen udal datuen eskaintza osoa ezagutzea eta bertara sartzeko eskuragarri dauden tresnak erabiltzen ikastea.
IKASLEEN HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> Udalerrian zer informazio estatistiko sortzen den jakitea. Eskuragarri dauden datuen ezaugarriak, potentzialtasunak eta mugak ulertzea. Eskura dauden datuak kontsultatzeko eta norberaren beharretara egokitzeko trebetasun-maila handitzea. Eustaten udal-atalaren, datu-bankuaren eta Lurdataren funtzionamendua ezagutzea
GAITASUNAK	Prestakuntza-ekintza amaitzean, ikaslea gai izango da bere intereseko informazio estatistikoa azkar eta eraginkortasunez eskuratzeko, horretarako dauden tresnen ezagutza-maila handiarekin.

PROGRAMA

METODOLOGIA	Aurrez aurreko saioa
PROGRAMA	<ol style="list-style-type: none"> 1.- Industria. Udal-informazioa duten estatistika-eragiketak 2.- Udal-atala. Ezaugarriak eta funtzionaltasunak. Datu-bankuarekiko harremana 3.- Datu-bankua, estatistika-informazioa kontsultatzeko tresna gisa 4.- Lurdata. Lurralde-desagregazio maximoa datuen kontsultan. Intereseko eremu geografikoak personalizatzea 5.- 2030. urtea. Udal mailako GJHen jarraipen-adierazleak





PRESTAKUNTZA ARLOA:	PRESTAKUNTZA BEREZIA
MODALITATEA:	AURREZ AURRE
HIZKUNTZA:	GAZTELANIA

INFORMACIÓN ESTADÍSTICA MUNICIPAL. ACCESO A DATOS A TRAVÉS DEL NUEVO APARTADO MUNICIPAL Y LURDATA



IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen balorazioa inkesta

Bete beharreko baldintzak:

ZIURTAGIRIA DIGITALA: ASISTENTZIA

- %80ko bertaratzea

Ziurtapen elektronikoaren mezua jaso bezain pronto [ziurtagiri digitala](#) eskuragarri izango duzu. "IVAPekiko Izapideak" atalean sartu eta "Ziurtatzeak" botoia sakatu.

PREZIOA

40,95€ (AGINDUA, 2022ko ekainaren 20koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen diru-zenbatekoa ezartzen duena.).

OHARRAK

- Eustatek hainbat euskarriren bidez eskaintzen du informazio estatistikoa. Eustaten udal-atal berriak udal-mailan eskuragarri dagoen estatistika-informazio guztia eskaintzen du, eta udalerriz udalerrri sar daiteke eskaintza horretara. Atalak elementu bisualak eta taula estatistikoak ditu. Elementu guztien datuak deskarga daitezke eta datu-bankuarekin konektatuta daude, eskuragarri dagoen informazioan gehiago sakontzeko aukera emanez.
- Lurdata Eustaten aplikazioa da, eta datuak ahalik eta desagregazio handienarekin kontsultatzeko aukera ematen du. Datuak atari mailan daude eskuragarri, eta aplikazioak ematen dituen GIS tresnen bidez erabiltzaileak mugatzen du datuak kontsultatu nahi dituen eremua. Eremu hori aurrez mugatutako espazio bat izan daiteke, hala nola zentsu-sekzio bat edo aplikazioaren eremuak marrazteko tresnei esker askatasunez sortutako espazio bat.

